

Funtsezko jarduerak

Publizitatean egingo ditugun kanpainak oso garrantzitsuak dira merkatal zentru gehiago erakartzeko. Guk beraien soberakinak behar ditugu gure negozioarekin jarraitzeko ; eta aldi berean beraien “donazioen berri” eman behar dugu, horrela beraien irudi korporatiboa hobetuko dute.

”Soberakinen batzea” egiteko ibilbidea zehatzak eta ondo egituratuak egitea; gure negozioaren ardatza soberakinak arin batzea da. Gu gure furgoneta bereziekin soberakin horrek batu egingo ditugu, eta momentu horretan gure lurretako zentrora zeintzuk bideratuko ditugun eta zeintzuk Caritaseko jantoki sozialetara erabakiko dugu, horrela denborarik ez galtzeko.

Jantoki sozialetan lanean dauden arduradunekin harreman oso estua daukagu; entregatzeko orduak zehazteko, beraien beharrianak eta abar.

Gure zentrora barazkiak eta fruituak heltzen direnean, kantitatearen arabera zeintzuk produktu ekoiztuko ditugun erabaki behar dugu; gure beharrianen arabera batzuk edo beste batzuk...

Gure produktuak ekoizten ditugunean merkaturatzeko era egoki baten daudela ziurtatzeko “aditu” bat daukagu; berak iraungipen data, eta produktuaren zehaztasunak etiketan jarriko ditu.

